

DOMUND 2025

"Itxaropenean misiolari herrien artean"



DOMUND

2025eko urriaren 19
19 de octubre de 2025

Herrien arteko
itxaropen
misiolariak

Misioneros de
esperanza
entre los pueblos



#Domund
Colabora!
www.domund.es



DELEGACIÓN DIOCESANA DE MISIONES
MISINOETARAKO ELIZBARRUTIKO ORDEZKARITZA
Plaza Nueva, nº 4 – 2º 48005 BILBAO - Tlf. 94 679 00 43
E-mail misiobi@bizkeliza.org

ORDEZKARIAREN IDAZKIA

Bilbao, 2025eko irailaren 2a
DOMUND 2025

Anai-arreba agurgarria:

Datorren urriaren 19an DOMUND Egunaren, hau da, fedearen zabalkunderako munduko domekaren, XCIX. Ekitaldia ospatuko dogu.

“Itxaropenean misiolari herrien artean” goiburuaren haritik, kanpainak Eleizaren misino-izatea agertu gura dau misiolarien errealitate zehatzean; Misinoaren aldeko otoitza eragin eta sustatu gura dau eta laguntasun materiala eta diru-laguntza eskatu preminan dagoan lekuetan Eleizari eusteko.

Ospakizun hau guztiz sustraituta dago Bizkaiko Eleizan, eta esanguratsua da Eleizatik kanpo bizi dan askorentzat be: “Misiolarien lekukotasunak erakargarritasunari eusten deutso aldendu eta fedegabeentzat be, eta kristau balioen igorle da” (Redemptoris Missio, 83). Itxaropena dago misinoaren jatorri eta amaieran. Kristo berbiztua da gure itxaropenaren iturria.

“Herrien artean”, zentzumenak, bihotza eta burua zabaltzeko deia da, gure ohiko lekuen - etxea, parrokia, PBa, eleizbarrutia- ertz estuak gainditu daiezan. Pobretasunik larriena, Kristo ez ezagutzea dala inoan behin eta barriro Frantzisko aita santuak. Gaur, eleiz errealitatearen muga objektibo eta subjektiboen berezko pastoral preminek iruntsi dabe *ad gentes* berariazko misinoa. Baita munduaren eraketa barriak be. Itxitasunerako joera handia izan daitekela ohartarazo eban san Joan Paulo II.ak, baina Eleizaren historiak erakusten dauanez, misino-bultzada bizitasunaren zeinu izan da beti eta bultzadarik eza, fede-krisiaren adierazle. Bere esanetan, misinoei laguntzea ez da emotea bakarrik, hartzen jakitea be bada.

Etsipenezko zantzuez beteta -zentzunik eza, axolagabekeria erlijiosoa, norberekeria hedonista amorratua, gerrak, errugabeen hilketak...- dagoan errealitatean, munduko askotariko herri eta kulturetan erabat txertatutako misiolarien lekukotasuna gure misinoaren arrazoi eta eragile nagusia dan Kristorenganako fedearen eta konfiantzaren etenbako haragitzea da. Argi iluntasunetan.

“Eleiza osoa, Eleiza guztiak mundu osorako”. Paolo Manna dohatsuaren esaldi honek gure bateotik eratorritako misino-erantzukizuna, mundu osoko alkartasuna, fedearen katolikotasuna gogorarazoten deusku. Sasoi latza bizi dogu; latza izan zan hasierako kristauen sasoi be eta aniztasunean bat eginda egozan, benetako ikasle-misiolari ziran kristau horreen bidez jaso dogu Kristo Jesusenganako fedearen altxorra.

Postaz jasoko dozuez lagungarriak: kartela, gotzainaren gutuna, ordezkariaren gutuna, liturgia lagungarriak eta ‘Illuminare’ aldizkaria.

Berbiztuaren Espirituak sustatu daiala gure misino-kontzientzia eta kanpaina graziazko unea izan daitela gure alkartean bizkortzerako, misino-kanpainen oinarritzko euskarri dira-eta.

Besarkada estua,

Manuel de Jesus Heredia Noriega
Misinoetarako ordezkaria

Madril, 2025eko ekaina

ESPAINIAKO GOTZAIN GUZTIEI

Anai agurgarria:

Alkarregaz egin dogu erronka gero eta korapilatsuei aurre egin behar deuten munduan izan diran gertaera garrantzitsuez markatutako kurtsoa. Hilabeteotan merezitako atsedena hartzea opa deusut, ezinbesteko da-eta pastoral kurtso barriari pozik eta indarbarrituta ekiteko.

Misinoetarako eta Eleizakazko Lankidetzarako Gotzain Batzordea osotzen dogun gotzainen izenean jotzen dot zuregana, aurton, **Misinoen Munduko Domeka (DOMUND) urriaren 19an** eta **“Itxaropenean misiolari herrien artean”** (ik. Mt 22, 9) goiburuaren haritik ospatuko dala jakinarazoteko.

5.500 misiolari baino gehiagok munduan bide egiten dihardue maitasunaren itxaropena eta Jainkoaren salbazinoa Barri Onaren kontsolamenduaren eta argiaren preminan dagozanei eroateko. Kristo bizidunak gure bizitzak eta alkarteak aldatzeko dauan indarraren ageriko zeinu da euren emote eskuzabala.

Otoitza, babes-keinua, dirua..., **laguntza guztiak kontuan hartzekoak** dirala pentsatzen dogunon ustea barritzeko aukera aparta da DOMUND eguna misinoa bihotzean daroagunontzat. Izan be laguntasun hori, txikia izanda be, benetako pizgarri da Eleizaren egiteko ebanjelizatzaileko lekuri pobreenetan.

Eskerrik asko eginkizun honetan izan dozun konpromiso eta lankidetzagaitik. Gotzainok gure alkarte misino-alderdiari emoten deusagun bultzada hil edo bizikoa da **“missio ad gentes”** dalakoaren ohitura luze eta emonkorrak bizirik, eguneratuta eta kementsu jarraitu daian Espainiako Eleizan.

Jaso eizuz nire esker on zintzoa eta anai agurra herri guztietara bere Erreinua iragartera bialtzen gaituan Jaunarengan.

+Joseba Segura Etxezarraga

Bilboko Gotzaina

Misinoetarako eta Eleizakazko Lankidetzarako Gotzain Batzordeko Presidentea

URTEAN ZEHARREKO 29. DOMEKA (C)

DOMUND EGUNA

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: fede eta itxaropen berak suspertuta etorri gara. Ondo etorriak eukaristiaren ospakizunera! Jaungoiko gure Aitaren indar eta maitasunean konfiantza osoa jarrita, eten barik otoitz egiteko esango jaku gaur.

Espirituak eraginda eta Jesusek irakatsita egiten dogun otoitza nabarmenduko dau Jaungoikoaren Hitzak.

“Itxaropenean misiolari herrien artean” goiburuaren haritik, DOMUND eguneko kanpaina honek Eleizaren misino-izatea agertu gura dau misiolarien errealitate zehatzean; Misinoaren aldeko otoitza eragin eta sustatu gura dau eta laguntasun materiala eta diru-laguntza eskatu preminan dagoan lekuetan Eleizari eusteko.

Eukaristia Jaunagaz bat egiteko otoitzaldi sakon dala sentituta, ospakizunari hasiera emongo deutsagu.

SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesukristo gure Jaunaren grazia eta bakea, zuekin.

DAMU OTOITZA

Isiltasuna egin eta eskatu deiogun parkamena Jaungoikoari.

- Galduta egoanaren bila etorri zarana: Erruki, Jauna.
- Munduaren salbamenaren alde bizia emon dozuna: Kristo, erruki.
- Bizia emoteraino maite izan gaituzuna: Erruki, Jauna.

OHARRA IRAKURGAIEI

Lehenengo irakurgaiaren arabera, Israel herria basamortuan zehar doa agindutako lurraren bila eta Jaungoikoagazko eten bako hartu-emonean bizitzeko esaten joko.

Erromesaldi horretan, bidean azaltzen diran zailtasunak jasaten ditu.

Bigarren irakurgaietan, jasotako mezuari leial bizitzeko dinotse Paulo apostoluak Timoteori eta kristinau guztiei.

Eta benetako leialtasuna honetan datza: mezuak Jaunak emoten deuskun Bizia dakarrela bere baitan eta danei emon behar jakela horren barri.

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Konfiantzaz beteta, aurkeztu deioguzan Aitari gure erreguak.

- 1.- Eleizearen alde. Fedearen indarraz eta Jesukristoren jarraitzaile zintzo lez, behartsuenen zerbitzari izan daiten. Eskatu deiogun Jaunari.
- 2.- Misiolarien alde. Ez dakiela sekula falta gure otoitza eta alkartasuna. Eskatu deiogun Jaunari.
- 3.- Agintarien alde. Jakinduriaz eta erabagiz, gizadi osoaren ona bilatu daien, behartsuenak ahaztu barik. Eskatu deiogun Jaunari.
- 4.- Gu guztion alde. Konfiantzaz eta etsi barik otoitz egiten ikasi daigun. Eskatu deiogun Jaunari.

Entzun, Aita ona, eta isuri zure Espiritu Santua mundu osora. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Gauzak emoteak eta geure burua emoteak dakarrela benetako poza gogoratu jaku Domund egunean. Horregaitik, eskuzabaltasunez lagundu daigun emon daigun dirua Jainkoaren eta munduko misinoen aldeko eskaintza bihurtuz. Jainkoak eskertuko deusku.

JAUNARTZEKO ISILTASUNEAN

Aita ona, "udabarriz" bete gaizuz,
itxaropenez betetako begirada izan
eta ugari banatu daigun.

Biztuta eutsi deiogun
itxaropenaren garrari,
iluntasun handiak dituan mundua
argiz eta berotasunez beteko dauan
sutzar bihurtu daiten.

Zure deiari erantzunez,
Kristorengan erakutsi deuskuzun maitasuna
bBeste herrialde batzuetan ezagutzera emotera
joan diran misiolarien alde eskatzen deusugu.

Eurak zein gu geu,
itxaropenean misiolari izan gaitezala herrien artean,
Haren antzera eta Haregaz batera,
gizadiaren garrasia jasotzera bultzatuta.

Arren eskatzen deutsegu Maria
Jesukristoren Ama eta gure itxaropenaren bitartez.
Amen.

ABADEAREN AGURRA (bedeinkapenaren ostean)

Otoitz egin eta maite gaituan Jaunagaz egoteko esan jaku. Egunero egin daigula geldialdia Beragaz egoteko.

Zoaze Jaunaren bakean!

ELEIZBARRUTIAREN DIRU-EKARPENA – OMP

Urtean zehar, misinoakaz lankidetzan jarduteko hainbat bide dago. Aita Santuak, bere aldetik, adiera hau emon gura deutse Domund eguneko munduko kolekta guztiei: Misinoko lurralde guztiei eusteko izan daitezala, katolikotasunaren, hau da, unibertsaltasunaren zeinu lez.

Aita Santuaren ardura peko Misiolari Egintzek, OMP deitzen diranek, laguntzen banaketa zuzena bermatzen dabe, munduko Eleiza guztiek gutxieneko laguntasuna jaso daien

Gehiago jakiteko, 2023ko oroitzatxostenera jo [esteka](http://www.omp.es) www.omp.es

Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkaritzatik esker ona adierazo gura deusuegu urtean zehar Aita Santuaren ardura peko Egintzen alde egiten dozuen guztiagaitik.

Kontu zenbakiak adierazten dizkizuegu **Aita Santuaren Misio Ekintzetako** dohainak sartu ahal izateko.

KUTXABANK-BBK_____ **ES52 2095 0000 76 2000027102**

LABORAL KUTXA_____ **ES22 3035 0019 90 0190009418**

OHARRA: dohaintzak ze parrokia, alkarte erlijioso, ikastetxerenak... diran ondo jakiteko, arren eskatzen deusuegu GAIAN honako hau ipinteko: **lehenengo herria** eta **ondoren parrokiaren, ikastetxearen... izena.**

Zuon bankuaren app-an **Bizum bidez 00500** dalakoan egin daikezue ekarpena.

Misiolari guztien eta OMP erakundearen izenean, **ESKERRIK ASKO!**